

# IRAGARKIA

Udalbatzak, 2013ko abenduaren 19ko ohiko bilkuran, **BIDAIARIEN HIRI ETA HERRI ARTEKO GARRAIO ZERBITZUAREN, AUTOETAN ESKAINITAKOAREN, ESLEIPENA ARAUTUKO DUEN BALDINTZA EKONOMIKO ETA ADMINISTRATIBOEN AGIRIA ONARTU ZUEN**. Hona hemen haren testua:

## **LEHENENGO KLAUSULA. Xedea**

Agiri honen xedea da lehiaketa bidez esleitzea taxi plaza bat Dulantzín, bidaiarien hiri barruko garraio zerbitzua, auto bidezkoa, esleitzeko. Dena den, Arabako Foru Aldundiak dagokion baimena eman beharko du herri arteko garraio zerbitzua onartzeko.

## **BIGARREN KLAUSULA. Izapidetzea, prozedura eta hautatze sistema**

Orokorra izango da espedientea izapidetzeko era, eta esleitzeko era, lehiaketa, zenbait esleipen irizpiderekin.

## **HIRUGARREN KLAUSULA. Interesdunek bete beharreko baldin-tzak**

Esleipendun izateko asmoa duten interesdunek ondoko baldin-tzak beteko dituzte:

- a) Pertsona fisikoa izatea, hemezortzi urte edo gehiago izatea eta jarduera horretarako Zirkulazio Kodeak edo indarrean dauden legeek zehazten dutena baino gazteagoa izatea. Lizentzia hori pertsona bati baino ezin izango zaio eman.
- b) Ez izatea beste auto-taxi lizentziarik beste inongo udalerritan.
- c) Europar Batasuneko herritar edo, Espainiak izenpetuta dituen nazioarteko akordio edo hitzarmenetan xedatutakoarekin bat etorritz, herritartasun hori eskatzea beharrezko egiten ez duen herri batekoa izatea edo, bestela, Espainian atzerritarren eskubide eta libertateei buruzko legedian araututakoaren arabera, norberaren izenean garraio zerbitzua eskaintzeko nahikoak diren baimen edo lizentziak izatea.
- d) Trafiko Buruzagitzak emandako gidabaimena izatea; hain zuzen ere, indarrean dauden arauen arabera, auto-taxiak gidatzeko gaitzen duena.
- e) Aginpidea duenak aldeztatik zigortu ez izana jarduera hori egitean, huts larri edo oso larri bat egin izanagatik.
- f) Bidaiarien hiri eta herri arteko garraio zerbitzua, autoetan eskainitakoa, arautzen duen ordenantzak xedatutakoa beteko du lizentzia jasoko duen ibilgailuak. Era berean, ibilgailu horrek urte bi baino gutxiago izango ditu.
- g) Dulantzín udalerrian erroldatuta egotea, eta bertan bizitzen, gutxienez, urtebete eramatea.
- h) Gizarte erantzukizuna estalita izatea, garraio zerbitzua ematean erabiltzaileei kalteak eragiten zaizkionerako. Legeria bereziaren arabera nahitaez ordaindu behar diren gainerako arriskuak hartzen dituen aseguru poliza ere kontratatuko da.
- i) Administrazioarekin kontratuak izenpetzeko inongo debekurik ez izatea.
- j) Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak beterik izatea.

## **LAUGARREN KLAUSULA. Eskaerak aurkeztea**

Honekin batera doan eranskinaren arabera egingo du interesdunak eskaera. Eskaerarekin batera baldintza orokorrak betetzen dituela egiaztatzen duten agiriak ere aurkeztuko ditu. Horretarako hilabete izango du baldintza administratiboan agiria ALHAOn argitaratzen denetik aurrera.

Prozeduran parte hartzeko eskaintzak bi gutun azal itxian aurkeztuko dira, ondokoak jasotzen dituztela barruan.

## **A gutun azala. Administrazio agiriak**

- a) Lizitatzzailearen nortasun fisikoa egiaztatzen duten agiriak: NANA, pasaportea.
- b) Beste auto-taxi lizentziarik ez duela egiaztatzen duen zinpeko aitortpena.
- c) Trafiko Buruzagitzak emandako gidabaimena, indarrean dauden arauen arabera, auto-taxiak gidatzeko gaitzen duena.
- d) Zinpeko aitortpena, egiaztatzen duena aginpidea duenak aldeztatik zigortu jarduera hori egitean, huts larri edo oso larri bat egin izanagatik.
- e) Errolda ziurtagiria.

- f) Zinpeko aitopena, egiaztatzen duena administrazioarekin kontratuak izenpetzeko inongo debekurik ez duela.
- g) Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak beterik dituela egiaztatzen duen agiria.

#### **B gutun azala**

- a) Eskaintza.
- b) Esleipen irizpideak arrazoitzen dituen agiria.

#### **BOSGARREN KLAUSULA. Esleipen irizpideak**

Honako irizpide hauen arabera esleituko da lizentzia:

- Ibilgailu egokitua izateagatik: 50 puntu.
- Garraio publikoaren zerbitzua eskaintzen, gutxienez, urtebeteko eskarmentua izateagatik: 0,50 puntu urteko; gehienez ere, 4 puntu.
- Eskatutako gidabaimena baino goragokoa izateagatik: 1 puntu.
- Egokitutako ibilgailuetan jendea garraiatzen aritu izanagatik: 0,05 puntu egiaztatutako hileko; gehienez ere, 5 puntu.

#### **SEIGARREN KLAUSULA. Esleipendunaren betebeharrak**

Lizentziaren esleipendunek 60 egun izango dituzte zerbitzua abian jartzeko. Zerbitzu hori eskaintzan adierazitako ibilgailuarekin eskainiko dute, eta Arabako Foru Aldundiaren Garraio Zerbitzuaren ezinbesteko baimenak izan beharko dituzte.

Lizentzia egitearen tasa ordainduko dute.

Era berean, aldizkari ofizialetan egindako iragarkiak ordainduko dituzte. Ordaindu beharreko hori ez da inoiz 300 euro baino gehiago izango.

#### **ZAZPIGARREN KLAUSULA. Zerbitzua eskaintzea**

Lizentziaren esleipendunak 60 egun izango ditu zerbitzua abian jartzeko. Zerbitzua eskaintzan adierazitako ibilgailuarekin eskainiko du, eta hori egin aurretik ondokoak aurkeztuko ditu:

- Lizitazio iragarkien ordainagiriak.
- Aseguruaren eta jarduera legezkoa dela egiaztatzen duten gainerako agirien kopia konpultsatua.

Zerbitzua indarrean dauden lege xedapenetan ezarritako eran eta baldintzetan eskainiko da; hain zuzen ere, bidaiarien hiri eta herri arteko garraio zerbitzua, autoetan eskainitakoa, arautzen duen ordenantzak xedatutakoaren arabera.

#### **ZORTZIGARREN KLAUSULA. Aplikagarri diren legeak**

Eusko Jaurlaritzaren Lehendakartzaren 2/2000 Legea, ekainaren 29koa, bidaiariak herri barruan eta herriz kanpo kotxez garraiatzeko zerbitzu publikoarena.

Eusko Jaurlaritzako Garraio eta Herrilan Sailaren 243/2002 Dekretua, urriaren 15koa, bidaiariak herri barruan eta herriz kanpo kotxez garraiatzeko zerbitzu publikoaren legearen arautegia onartzen duena.

Aplikagarri diren gainerako legeak.

Dulantzi, 2014ko urtarrilaren 21a  
ALKATEA

Joseba Koldo Garitagoitia Odria

## ERANSKINA

### AUTO-TAXI LIZENTZIA ESKATZEKO ORRIA

..... jaunak/andreak,.....  
udalerriko..... kaleko....., bizi denak,..... NAN  
eta..... telefono zenbakidunak, ondokoa

#### ADIERAZTEN DU:

Gidaridun auto alokatuetan bidaiariak hiri barruan garraiatzeko, auto-taxi lizentzia bat lehiaketa bidez esleitzeko deialdiaren berri izan duela, ALHAOn argitaratutako iragarki bidez.

Lehiaketa hori arautzen duen baldintza agiria erabat onartzen duela.

Lizitazioa arautzen duen baldintza administratiboen agiriaren 3. klausulan eskatutako baldintza guztiak betetzen dituela, eta horren lekuko ondoko jatorrizko agiriak edo kopia konpultsatuak aurkezten dituela:

- 1) NANA edo, atzerritarra izanez gero, haren baliokidea.
- 2) Bidaiarien garraio publikorako autoak (auto-taxia) gidatzeko indarrean dauden legeek eskatutako gidabaimena.
- 3) Ibilgailuaren zirkulazio baimena.
- 4) Ibilgailuaren ikuskapen teknikoaren txartela.
- 5) Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak beterik izatea egiaztatzen duen agiria edo zinpeko aitortpena.
- 6) Udal administrazioarekin zerga zorrik ez duela egiaztatzen duen agiria.
- 7) Errolda ziurtagiria.
- 8) Beste auto-taxi lizentziarik ez duela egiaztatzen duen zinpeko aitortpena.
- 9) Zinpeko aitortpena, egiaztatzen duena aginpidea duenak aldeztatik ez duela zigortu jarduera hori egitean, huts larri edo oso larri bat egin izanagatik.
- 10) Zinpeko aitortpena, egiaztatzen duena administrazioarekin kontratuak izenpetzeko inongo debekurik ez duela.

Zerbitzu hori..... markako..... modeloarekin eskainiko duela, eta ibilgailu horrek baldintza agiriaren 3.f) klausulan eta bidaiarien hiri eta herri arteko garraio zerbitzua, autoetan (taxia) eskainitakoa, arautzen duen ordenantzan xedatutako baldintzak betetzen dituela.

Horregatik guztiagatik, honako hau **ESKATZEN DU**:

Dulantziko udalerrian gidaridun auto alokatuetan bidaiariak hiri barruan garraiatzeko zerbitzua eskaintzeko auto-taxi lizentziaren esleipendungai izateko lizitazio prozesuan onartua izan dadila.

tokia, eguna  
Eskatzailearen sinadura

DULANTZIKO UDALEKO ALKATE-LEHENDAKARIA